

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2021

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

BIGARREN SARIA:

Badaezpada

Irantzu Olariaga Zubizarreta

Badakizu, batzuetan zu eta biok bakarrik gara bizi honetan. Hori idatzi dio idazleak portatilari pantaila zurian. Word orri bat ireki du aspaldi, eta aurpegiaren aurrean dauka orain, urruti, urrutiegi, Barbadosen ziur aski, harat abiatuko baita idazlea ahal bezain pronto, bidai agentzian gomendatu dioten modura. All-included dio mahai gaineko iragarkiak. Inspirazio bila dabil, etxeko paretek ebatsi dizkiotelako dagoeneko ideia guztiak, eta fase introspektiboa bukatu da, esan dio editoreak. Errealitateari buruz idatzi behar duzu, eta berak baietz, horretara jarriko dela. Bohemia bada ere, Mercadonan patatak erosteko sosa behar du, jatekorik nahiko balu, behintzat. Leihoak itxita eta kisketa emanda ditu, inork zirika ez dezan. Blokeaturik dago poeta. Zerbikalak tente ditu, tenkatuegi, eta burua lehertzear. Ez da zer idatzirik. Word dokumentua irekita utzi du. Badaezpada.

Alokairuko logelatik atera da, baita artistentzako ostatu zatar horretatik ere bai. Kale bereko lehen elikagai dendan sartu da. Alimentación SONIA. Mercadona merkeagoa da, pentsatu du, baina urrunago dago. Patatak erosi ditu, eta garagardoak. Hogeitalauko pack horietako bat. Ez da Sonia deitzen kutxazaina, Zulema baizik.

–Ba bai, Rosa, esan dizudan moduan izan zen. Biltegi sartu eta hantxe harrapatu zituen. Noski, nik zer egin nezakeen? Ikusi nuen nagusia sartzen, baina ordurako ez zegoen zer eginik. Haiek ipurdiak airean zituzten jada, eta ni kutxan nengoen bezeroekin.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

BIGARREN SARIA:

–Baina, zuk bazenekien?

–Noski, nola ez naiz enteratuko ba? Egun osoa ergelak bezala hitz egiten pasatzen zuten. Batzuetan kursiegiak eta guzti, nire usterako. Nik neskatxari esan nion: kasu eman eta ez zaitetz sobera despistatu, hemen begiak edonon daude eta. Eta kamerak lau izkinetan. Gainera, gehiegitan etortzen zen honat morroia, bere lekua biltegia zuenean. Ezinezkoa zen deus ere ez susmatzerik!

–Mutikoa ere ez zen moztu!

–Bueno, badakizu nolakoak diren ijito hauek... Beti euren saltsan, beti fitxak poltsikotan. Asma zitekeen lehenago edo beranduago norbaitek harrapatuko zituela.

Dendariak goitik behera begiratu du idazlea. Itxura onik ez dauka. Atorra gaizki loturik darama. Itzuli dizkio bost zentimoak. Idazleak zerbait ahaztu duela esan dio, eta kutxaren aurrean zegoen txikle paketea hartu du. Berriz jarri da ilaran idazlea. Ez da inoiz berri-ontzia izan, baina interesa piztu zaio orain.

–Azkenean biak bota dituzte, orduan?

–Bai ba, ez dizut lehen esan? Egia da zikinkeria hutsa dela, han biltegian...

–Tira, nik ulertzen ditut. Ni, hemen ez nagoenean, lanean nago auzoko zahar guztien etxean. Egunero gaude atazan... eta morboa bilatu behar zaio, ahal dela!

–Bueno, arrazoirik ez zaizu falta. Gaztetxoak izanda, gainera. Nik ez diet errurik botatzen. Hori bai, orain buelta kurrikulumen infernura. Aiba, Maitetxu, aspaldiko! Zer moduz, maitia?

Idazlea elikagai dendatik atera eta ostatura bueltan zihoala, tabakoaz oroitu da. Estankoan ilara dexente dago. Azkenaren atzean kokatu eta berehala, gizon garai bat jarri zaio gibelean. Argal-argal dago. Idazleak noizbait lodia izan ote den pentsatu du. Gizona hizketan hasi zaio.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

BIGARREN SARIA:

–Barkatu, jauna, ba al du zigarrorik? Bizioa, badaki... Eskerrik asko. Eta surik? Mila esker. Utzi beharko nuke, badakit. Tira, utzi beharko genuke, bi-biok. Baina zaila da, ez al da hala? Gainera, mundu guztiak badu adikzio txikiren bat, hori pentsatzen dut nik. Nik nahiago tabakoa alkohola edo janaria baino. Ez dakit, badu beste xarma bat. Bueno, eta zer esanik ez bigorexiko horiekin alderatuta, kar, kar. Auzoko bosgarren gimnasioa zabaldu dute aste honetan, entzun al duzu? Egiatan, jendeak ez al du bizitzarik?

Gizonak bukatu du lehen zigarroa eta aurrean duen ilarari egonezinaz begiratu dio. Oin bat dauka gora eta behera, etengabe, urduri. Bat, bi, bat, bi. Tik, tak, tik, tak.

–Nik beste bizio batzuk nituen, lehen. Badakizu, rock and rollean, punkean, ibiltzen ginenok. Baina beste bizi bat zen hura. Orain, alabak, emazte ohia... Batek ezin du igande eguerdira arte luzatu parranda. Noizean behin, onartzen da, bistan da. Baina ez beti. Eskerrak futbola gelditzen zaigun! Eta tabakoa, noski, kar, kar...

Azkenean ilara bukatu eta aurrera egin du idazleak. Tabako-dendako langilea aurreko bezeroarekin hizketan ari da.

–Ezetz, andrea, hemen ez dugula paketerik bidaltzen. Hori Correosen ofizinan egin behar da. Sentitzen dut ilara osoa itxaron behar izan baduzu. Nik zigilua sal diezazuket. Ecuadorrera, bai, arazorik gabe. Internet konexioa? Ba ez, hori nik ere ez daukat. Lokutorio batera joan beharko duzu, andrea, bai. Non aurki dezakezun? Interneten bila de... ah, ez! Ba... kalean galdetzen baduzu ziur norbaitek badakiela, sentitzen dut, nik ezin dut gehiagorik egin...

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

BIGARREN SARIA:

Behin estankoan bukatuta, eliza paretik igaro da idazlea. Bi atso atera dira, kilometro orduko abiaduran. Besotik heltzen diote elkarri. Ez da koinzidentzia, pentsatu du idazleak, ezta laguntasun kontua ere. Beldurra usaintzen ahal da. Batek zorroari gogor heldu dio atarian eserita dagoen eskalearen aurretik pasatzean. Besteak berrogeita hamar zentimo nekez utzi dizkio baso erdi hutsean. Amonekin talka egin du ia-ia idazleak, top mantako bi langile beltzaranen maindirea ez zapaltzearren. Une horretan agertu da udaltzaingoa. Zitzu bizian bildu eta korrika hasi dira gizon beltzaranak. Bati, saltzen zuen pirateriako pelikuletako bat erori zaio lasterketan: Kill Bill, Vol. 1.

Idazlea ere korrika hasi da.

Arnasestuka iritsi da ostatuko portalera. Logelan sartu eta Barbadoseko iragarkia zakarrontzira bota du segituan. Portatilaren aurrean eseri eta idazten hasi da. Lehen hitzarekin hasi baino lehen, bizilagunaren ahotsa entzuten hasi da. Telefonoz ari da, solasean. Leioa zabal-zabal ireki du idazleak. Badaezpada.